



# **ZALANTZAK ETA ERANTZUNAK**



## **1. Zer gertatzen da bozketen ondoren lanaldi jarraitua ateratzen ez bada?**

Gaur egun Hezkuntza Sailak ez dio erantzun argirik eman galdera horri, osasun-egoeragatik lanaldi jarraituarekin jarraitzea ezar baitezake.

## **2. Zergatik aurkezten da lanaldi jarraitua urtarrilean hasteko?**

Ebazpenak honako hau dio: RESOLUCIÓN 411/2021, de 30 de septiembre, del Director General de Educación, por la que se aprueban las instrucciones que van a regular el procedimiento para la implantación de la jornada escolar continua y de la jornada escolar flexible, de forma experimental, para los cursos 2021-2022 (a partir de enero de 2022) y 2022-2023, en centros de Educación Infantil y Primaria, así como en centros de Educación Especial, tanto públicos como privados concertados, de la Comunidad Foral de Navarra.

## **3. Lanaldi jarraitua onartuz gero, eskolaz kanpokoetan izena emateko epea irekiko da?**

Bai, abenduan epe berria irekiko da izena emanda ez dagoenarentzat.

## **4. Esaten da orain bizitzen ari garena ez dela ohiko jardunaldi bat, zergatik?**

Egunero diruz lagundu da jantokia, eskolaz kanpoko ratioak, eskolaz kanpoko jardueren plangintza, jasotzeko ordutegia 15: 00etatik 15: 45era,...

**5. Lanaldi zatituko ordutegiak gogoratu ahal daitezke?**

Lanaldi zatituko ordutegiak hauek dira:

- Astelehenetik- ostegunera: 9:00-12:50 eta 14:50-16:30
- Iraila, ekaina eta ostiralean: 9:00-13:00

Diruz lagundutako jantokia astelehenetik ostegunera garraiatutakoentzat. Diruz lagundu gabeko jantokia: iraila, ekaina eta ostiralak.

**6. Jantokian jasotzeko Apymak eskainiko duen zerbitzua ordainpekoa izango da?**

Oraindik ez dakigu, baloratu egin beharko da eta bazkideen artean erabaki.

**7. Eta beharrezkoa al da oraindik ezagutzen ez den edo argi ez dagoen zerbait bozkatzea?**

Deialdian epe batzuk daude ezarrita, eta betetzen ez badira, kanpoan geratuko ginake. Lanaldi aldaketa epe luzerako zerbait bezala pentsatu behar da, eta ez hainbeste ikasturte honetarako.

**8. Zer gertatzen da garraiatuekin? Ados egon behar dute familiek autobusa ordu batean edo bestean irteteko?**

Bai. Autobus-lineak ez dira bikoiztuko. Egin daitekeen gauza bakarra, agian onartuko luketena, Zuzendaritza Taldearen eta autobus-enpresen artean ibilbideak berrantolatzea izango litzateke, eskolaz kanpo egin nahi duten edo ez duten ikasleen arabera. Baina banan-banan ikusi beharko lirateke kasu guztiak.

**9. Zer ordutan irtengo lirateke ostiraletan jantokian geratzen direnak?**

15: 00etatik 15: 45era.

**10. Garraiatutakoeen bila joan daiteke eskolaz kanpokoaren aurretik, orain bezala?**

Gaur egun egiten den bezala. Garraiatutako ikasle batek eskolaz kanpoko jarduetara joan nahi ez badu, bilaketa-ordutegiaren barruan bila etor daiteke.

## 11 **Autobus-linea bikoitzik egongo al da?\*** *Zizur BHI*

Ebazpenean aldaketaren bat dago, ikastetxe honetan aurreko deialdian gertatu zenaren ondorioz. Kontsulta egin dugu eta arazo hori konpontzen saiatu gara, aurreko aldian gertatu zenaren ondorioz. Bi ordutegi posibleen oniritzia eman ziguten, eta Zizur BHIrekin partekatzen ditugun lineak bikoizteko borondatea erakutsi du sailak. (Lerro hauek bikoiztea lortzeko egin den prozesuaren azalpena).

## 12 **¿ Zergatik ebaluatu behar da lanaldi jarraitua beste lanaldia ebaluatzen ez denean?**

Lanaldi jarraitua behin-behinekoa da beti. Urte guztietan ebaluatu behar da (horretarako gai diren ikasleak, familiak eta irakasleak).

## 13 **Ba al dago lanaldi jarraitua izan ondoren lanaldi zatitura itzuli den ikastetxerik?**

Ez dakigu. Ezagutzen ditugun guztiek zatituan jarraitzen dute.

